

Ezpalak

JON TORNER

Kontxu Odriozola aktore azpeitiarrari eman dio Besarkada saria Euskal Aktoreen Batasunak. Duela 20 urte sortu zuten elkarte, eta data hori ospatzeko Donostian egindako galan omendu zuten Odriozola.

Zinebik, Bilboko zinema dokumentalaren eta film laburren nazioarteko jaialdiak, Ex IS lehiaketa antolatu du. Sortzaile garaikideei zuzendurik dago eta aurkeztutako ikus-entzunezko lanek izaera experimentalak izan behar dute. 4.500 euro banatuko dituzte sarietan.

TRY AGAIN izena du Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean paratu duten erakusketa



berriak. Bideojokoek mundua islatu dute hogeita hamar artista inguruk, interakzioa bilatzen duten ikus-entzunezko proiektuen bidez. Erakusketak irailaren 27a arte egongo da zabalik.

Karmele Jaiok 2006an argitaratu zuen *Amaren eskuak* eleberri arrakastatsua gaztelaniara itzuli du *Las manos de mi madre* (Tarttalo) izenburupean. Jaioren euskarazko eleberriarren bederatzia edizio argitaratu dira jada.

Miren Amuriza berriztarrak irabazi du Eskola Arteko Bertsolari Txapelketa, helduen mailan (14 eta 18 urte bitarteko taldean). Umeen mailan (14 urte artekoetan) Maialen Akizu urretxuarra izan da nagusi.

Jon Ostolaza debarrak eta Rakel Pujana markinarrak *Lasturbidean* izeneko diskoa argitaratu dute. Lan horretan erromeria giroa da nagusi eta Sakabi, Elgeta, Gelatxo eta Txankarta trikitilariak jotzen zituzten abestiak berreskuratu dituzte. Diskoa grabatzeko bi erromeria afari egin zituzten Lasturren (Itziar).

Ahmad Jamal pianista estatubatuarra (Pittsburgh, 1930) jasoko du Donostiako Jazzaldia saria, "jazzari egin dion ekarpenagatik". Uztailaren 22an hasiko da jaialdia.

Uztailaren 11n hasiko da Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia

LEKEITIOKO KALE ANTZERKI JAIALDIAK 19. edizioa izango du



aurtengoa. Uztailaren 11tik 13ra egingo da eta hogeita emanaldi baino gehiago eskainiko ditu herriko txokoetan. Katalunia, Alemania, Errusia, Frantzia, Quebec eta Euskal Herriko konpainiek parte hartuko dute jaialdian. Markeliñe eta Trapu Zaharrak euskal taldeek euren lan berriak aurkeztuko dituzte, *Terapia* eta *El Concursazo*, hurrenez hurren. Egitarau osoa jaialdiaren webgune berrian kontsulta dezakezue: www.lekeitiokale.net.

Juan Zelaia Saiakera Sarirako deialdia egin du Pamielak

PAMIELA ARGITALETXEAK abian jarri du Juan Zelaia VIII. Saiakera Saria. Euskaraz idatzitako lanak aurkez daitezke, gehienez 75 orrialdekoak eta saiakera, gogoeta edota iritzi izaera dutenak. Horretarako epea 2008ko irailaren 30ean amaituko da. Irabazleak 9.000 euro jasoko ditu.

[Manu Muniategiandikoetxea](#) artistak [Euskonews & Media](#)

webgunean: «Noizbait atentzioa ematen didate haur batek oso ongi margotzen duelako. Baina haurrak ongi margotzeak ez dauka baliorik, bere lagunak jolasten duten bitartean berak margotzen jarraitzen badu, orduan bai, artista izan daiteke (...) Futbolarekin alderatzen dut nik, badaude Champions txapelketan jokatzeko dutenak, baina gehienak hirugarren mailako talde batean aritzen dira. Nik erdi profesionala izatea lortu dut eta ohartu naiz gogorra dela, segurtasunik ez duelako».

[Juan Ramon Makuso idazleak](#) [Deiaren Ortzadar](#) gehigarrian: «Asko aipatzen da euskal literaturan kritikarik ez dagoela, baina geure burua prestatua al dago kritikarako? Hasteko, ez dago kritikiko profesionalik, egiten diren kritikak edo erreseinak boluntarismotik eginak daude. Mari Jose Olaziregik esan berri du mundu guztia idazle dela,

edo izateak, sortzen duela bere artean ez ikustea. Honek bere gordinen erantzun bat du: unibertsitateko ahots batek hori esanda, agian bakoitzak bere lana egin behar duela. Norberaren kritika eta autokritika horretan ni Aristotelesen oso aldekoa naiz; berak esan zuenez, gizakiak izatez jakiteko nahia du. Nik hori baino ez dut nahil!».

[Aizpea Goenaga aktoreak](#) [Berrian](#): «Arazo handienetakoa da obra bat muntatzen denean denbora gehiegi behar dela Sarearen zirkuitua egiteko. Hala, gero eta zailagoa da aktoreak eta teknikariak obra horrekin lotura finko bat izatea, emanaldiak gehiegi tartekatzen direlako (...) Laguntzak emateko modu jakin batzuk daude orain, eta hori dena berraztertu egin behar da. Irizpideak aldatu behar dira beharbada. Epaimahai batek erabakitzen du askotan obra bat lagundu behar den ala ez, eta laguntzak beste era batera eman daitezke».

Euzkel Egutegiya. Bertsoaren indarra eguneroko bizimoduan

Euskaldun zintzoaren etxerako eskuliburua, Ana Eizagirre Sagardia (Utriusque Vasconiae, 2008), 362 orrialde.

Herri xehearen irakurketa praktika aztertu du liburu honetan, euskarazko alfabetatzearen historia aditu den Ana Eizagirrek. XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran euskarazko irakurketa esparruaren muina dotrina, bertsopaperak eta egutegiak ziren, eta Eizagirrek aztertutako *Euzkel Egutegiyan* ere, bertsoen pisua nabarmena da: 1914-1916 epealdian, euskaltzetasunean heztera bideratutako testuen %40-45 bertsoak ziren, euskortasun sentimendua indartzera bideratutako testuen %80 inguru ziren bertsoak, eta kultur orokorreko formaziorako idatzitako testuen %60. 1910-1913 urte artean erlijio gaiak izan zuten indarra bertsoetan, eta 1909an, *Euzkel Egutegiya* argitaratu zen lehen urtean, berriz, asmakizunak egin ziren bertsotan, irakurleek falta ziren errimak osatu behar zituztelarik.

Egutegietako orritxoetan bertsoek zuten presentzia nabarmena, eguneroko bizitzan bertsopaperak zutenarekin bat dator. Dokumentu historiko gisa balio handia dute bertsopaperak, bertsolaritza bera garatzeko balio izan zuten, eta informazioaren zabalkunderako baliabide eraginkorrak ziren.



Gaurko egunetan orduko funtziorik betetzen al dute bertso jarriek? Dokumentu historiko gisa batere ez, gertakari oro mikrograbatuta uzten ari garen aro honetan. Baina bertsolaritza garatzeko modu onena bada oraindik, eta informazioaren zabalkunderako ere baliabide eraginkorra izan daiteke, kasu jakin batzuetan. Larraulen (Gipuzkoa) eskola irekiko dela herritarrei jakinarazteko zer modu hobirik, herritar gehien biltzen den ekitaldian (festetako bertso saioa) etxera eramango duten bertso sorta banatzea baino?

Emeterio Arreseren bertsoak izan ziren *Euzkel Egutegiy*an urtetan argitaratuenak, Bilintx, Jose Artola eta Antonio Arzakenekin batera. Bizpahiru urtez euren alea utzi zutenak, berriz, Sabin Arana Goiri, Elizanburu, Jose Luis Jauregi "Jautarkol", Felipe Arrese, Pedro Migel Urruzuno... Arrastoa utzi nahi duen ideologo edo bertsolaririk bada, ARGIAN hamaika orri atzerago du txokoa.

ESTITXU EIZAGIRRE

<p>KEMEN LERTXUNDI <i>Galdutako zubixak: poemak eta kantak</i></p>	<p>ESNE BELTZA <i>Made in Euzkel Herria</i></p>	<p>OSTOLAZA ETA PUJANA <i>Laster Bodean</i></p>	<p>GAINSBOURG GAINBEGIRATUZ</p>
<p>KARELEAN <i>56. gelatik</i></p>	<p>MORAU TA AGOTAK <i>Kalamndadiak</i></p>	<p>JOSERRA SENPERENA <i>Daniaren interpretazioa</i></p>	<p>LOS REYES DEL K.O. <i>Live in Yorkzeblüsschen, Berlin</i></p>

Euzkel 25
 200815046.111
 Tel: 943 943 700/94
 Fax: 943 943 708/709
 gaithe@errabal.com
 www.hotsak.com